BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/09/05

# Maskotek Zubi "eskegiaren" kabina itxietan bidaiatu ahal izatea eskatu dabe Bizkaiko Batzar Nagusiek

Bizkaiko Batzar Nagusiek, arautegia aldatzea eskatuko deutsie “El transbordador de Bizkaia SL” enpreseari, bidaiariek euren maskotakaz zubi “eskegiaren” estaldutako kabinetan bidaiatu ahal daien. Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamenak Bizkaiko Batzarretako talde guztien aho bateko aldeko eretxia jaso dau.

Nuria Atienza talde horretako batzordekideak adierazo dauenez, garraio horretako “egoerea normalizetako ordua da”, maskotek euren jaubeakaz bidaiatu ahal izateko Bizkaiko Zubi Eskegiko estaldutako kabinetan, eta, horretarako, ehun urte baino gehiago dituan garraio hori kudeetan dauen enpresa pribaduari, aldaketa horreek egituretako modua zehazteko eskatu deutso.

Bere esanetan, aldaketak, garraio horretan gertatzen dan “segurtasun eta osasun arazo” bat bideratuko leuke. Izan be, maskoten jaubeek eta maskotek eurek une honetan ontzitxoaren atzekaldean eta erdialdean bidaiatu behar dabe, hau da, automobilentzat eta motoentzat erreserbauta dagon lekuan. Hau da, “kalean dagoz, itsasadarrera erortzeko arriskuagaz eta motordun ibilgailuen keak arnastuz”.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariaren eretxiz, egoera hori “penagarria” da, baina gaia “konplexua” dala onartu dau, enpresa pribadu bati bideratu beharreko agindua dalako.

PP taldeak, bere aldetik, Enpresak bere bertsinoa aurkeztea eskatu dau, Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordean, eta EH Bilduk, barriz, Bizkaiko garraio publiko guztietan maskotakaz bidaiatzeko erespideak bateratzea eskatu dau, “zerbitzuz-zerbitzu” arautegiaren aldaketak proponiduz ibili beharrean.

Horrez gain, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek txalotu egin dabe Foru aldundiari aldaketa horiek bideratzeko eskatzen eutsan aurreko ekimena baztertuz eta aldaketa horreek indarrean jarteko gaitasuna dauen enpreseari gauza bera eskatzen deutsan arauz besteko proposamenean gauzatuz Podemos Bizkaiak erakutsi dauen jarrerea.

## URDULIZKO OSPITALERA DOAN BIZKAIBUSEN LINEA BARRIAREN BURUALDEA LEIOAN EGONGO DA

Agorrileko oporraldiaren parentesiaren ostean Bizkaiko Batzar Nagusien batzarretako jarduerari hasiera emon deutsan saio berean, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako diputatuak, EH Bilduk egindako ahozko itaunari

erantzunez, Urdulizko Ospitaleraino Eskumaldetik joango dan linea barria Leioa erdialdean abiauko dala esan dau, Erandion abiau beharrean, hasiera batean hori aurreikusi bazan be, azken udalerri horretako biztanleen erreferentziazko ospitalea Gurutzeta izaten jarraituko dauelako.

Beste alde batetik, Reyesek jakinarazo dauenez, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak erakunde arteko batzorde bat eratuko dabe hilebete honetan, Termibus barria eregiteko lanek Bizkaibuseko zerbitzuan eragingo dituen aldaketen nondik norakoa aztertzeko. Reyesek esan dauenez, lanek irauten daben bitartean –18 hilebete, Udalak jakinarazo deutsonez– Bizkaibuseko zerbitzuaren funtzionamentuak "ez dau ezelango eraginik jasango".

Obrek erabiltzaileengan izango dituen eraginak dirala eta Diputatuaren agerraldia eskatu daben popularrei emondako erantzunean, Reyesek baieztu egin dau Aldundiak Udalari "78.000 euro" ordaintzen jarraituko dauela, Garellanotik lan egiten daben Bizkaibuseko "egungo 16 lineek" hartzen dituen dartsenen erabilerea dala eta. Kanon hori, KPIgaz baino ez da igongo datozan urteetan.

NOTA DE PRENSA
05/09/2016

**Juntas Generales de Bizkaia pide que las mascotas puedan viajar en las cabinas cerradas del Puente "Colgante"**

Las Juntas Generales de Bizkaia pedirán a la empresa Transbordador de Vizcaya S.L que modifique su normativa para que las mascotas puedan viajar junto con sus dueños en las cabinas cubiertas del puente “colgante”. La proposición no de norma presentada por el grupo Podemos Bizkaia ha contado con el apoyo unánime de todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína.

Nuria Atienza, apoderada de esta formación, ha dicho que "es hora de que se normalice la situación" en dicho transporte en relación a que las mascotas puedan viajar con sus propietarios en las cabinas cubiertas del Puente de Bizkaia y, para ello, ha instado a que la empresa privada que gestiona este transporte centenario concrete ahora la forma de articular estos cambios.

La modificación daría respuesta, según ella, a “un problema de seguridad y salud” en dicho transporte, ocasionado por el hecho de que los dueños y sus mascotas viajan actualmente en la parte trasera y central de la barquilla, o sea en el mismo espacio reservado para coches y motocicletas, lo que supone que estén “a la intemperie, con riesgo a que se produzcan caídas a la ría y sufriendo los humos” de los vehículos a motor.

El representante del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha tachado esta situación de “penosa” si bien ha reconocido que el tema es “complejo” ya que se trata de instar a una empresa privada.

Por su parte, el PP ha pedido que la empresa ofrezca su versión en la comisión de Relaciones y Peticiones con la Ciudadanía, mientras EH Bildu ha solicitado que se unifiquen los criterios para viajar con mascotas en todos los transportes públicos de Bizkaia, en lugar de ir “de servicio en servicio” proponiendo modificaciones de la normativa.

Asimismo, PNV y PSE-EE han aplaudido la actitud de Podemos Bizkaia de retirar una iniciativa anterior que instaba a la Diputación a posibilitar estos cambios y de presentar hoy una nueva proposición no de norma que solicita los mismos a la empresa que tiene capacidad para ponerlos en práctica.

LA CABECERA DE LA NUEVA LINEA DE BIZKAIBUS AL HOSPITAL DE URDULIZ SE UBICARÁ EN LEIOA

En la misma sesión que arrancaba la actividad parlamentaria en las Juntas Generales de Bizkaia tras el paréntesis de agosto, el diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, a pregunta oral de EH Bildu, ha explicado que la nueva línea que recorrerá la Margen Derecha con destino el hospital de Urduliz arrancará en el centro de Leioa en lugar de hacerlo en Erandio como inicialmente se había previsto, ya que los vecinos de esta localidad seguirán teniendo Cruces como hospital de referencia.

Por otro lado, Reyes ha anunciado que el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación foral de Bizkaia crearán durante este mes una comisión interinstitucional para estudiar el desarrollo de los cambios que se produzcan en el servicio de Bizkaibus como consecuencia de las obras de la nueva Termibus. Reyes ha asegurado que mientras duren los trabajos -18 meses según le ha comunicado el Ayuntamiento- el funcionamiento del servicio de Bizkaibus "no se verá afectado bajo ningún concepto".

En respuesta a los populares que habían pedido su comparecencia por la afección de las obras a los usuarios, el diputado ha confirmado que la Diputación seguirá pagando "78.000 euros" al ayuntamiento por el uso de las dársenas que ocupan "las actuales 16 líneas" de Bizkaibus que operan desde Garellano, canon que se incrementará en los próximos años únicamente como consecuencia de la aplicación del IPC.